

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018**

**LEHENDAKARITZA**

1. 2018ko euskal etxeentzako diru-laguntzak .....	2
2. 2018ko egoera larrian dauden pertsonentzako diru-laguntzak.....	4
3. Gaztemundu 2018.....	5
4. Kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko bekak .....	7
5. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak .....	9
6. Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuen programa.....	10
7. Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen proiektuak finantzatzeko diru-laguntzak..	11



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2018ko euskal etxeentzako diru-laguntzak**

## 2.- Araua

50/2008 DEKRETUA (EHAA Zk. 69/2008) martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena

175/2014 DEKRETUA (EHAA Zk. 176/2014) irailaren 9koa, Euskal Etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko Dekretua aldatzekoa

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

50/2008 DEKRETUA, 175/2014 DEKRETUA

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 21ekoa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2018an euskal etxeei emango zaizkien diru-laguntzetara biltzeko deia egiten duena

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 12koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, 2018. urtean euskal etxeei eman zaizkien diru-laguntzen berri ematen duena

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal etxeentzako diru-laguntzak ohiko gastuak, jarduerak antolaketak eta azpiegitura eta ekipamendu gastuak finantzatzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak:

IV. Kapitulan 717.427,52 € esleitu ziren (782.306 € aurrekontuan) 15 herrialdeko 66 euskal etxeetara eta VII. Kapitulan 120.000 € esleitu ziren (120.000 € aurrekontuan) 7 herrialdeko 27 euskal etxeetara.

Aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak: 60 esleipen aurreikusiak, 66 esleitutakoak.

Eragina gizartean:

Aurreko deialdietan izandako betetze maila, oro har, ona izan da. Euskal zentroek aurreikusitako xedeetarako erabiltzen dute diru laguntza. Hautemandako desbideratzeak gertatzen dira adierazle batzuk ezin direlako aurreikusi eta beste batzuk neurtzeko metodoa hobetzen delako. Euskal zentroek jaso dezaketen diru laguntza 30.000 €-ra mugatzean, banaketa bidezkoagoa bermatzen da zentro handien eta txikien artean, azken horiek askotan diru laguntzaren baitan geratzen baitira euskal kulturaren difusiorako jarduerak egin ahal izateko.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: Euskal etheen jarduera kopurua, diru-laguntzen ildoan bitartez lagundutakoak (IV. Kapituluak)

Aurreikuspena: 600

Emaitza: 643

Adierazlea: Euskal etheen jarduera kopurua, diru-laguntzen ildoan bitartez lagundutakoak (VII. Kapituluak)

Aurreikuspena: 10

Emaitza: 27



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2018ko egoera larrian dauden pertsonentzako diru-laguntzak**

## 2.- Araua

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko dira.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

222/2003 DEKRETUA

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 6koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez 2018. urteko deialdia egiten baita euskal etxeei diru-laguntzak emateko, zehazki, atzerrian dauden euskal gizataldeetako kide diren eta egoera larrian eta asistentzia-faltan dauden pertsonen laguntzeko

EBAZPENA, 2018ko azaroaren 26koa, Kanpoko Euskal Komunitatearen zuzendariarena, euskal etxeei diru-laguntzak ematen dizkiena atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonak laguntzeko

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da euskal etxeei laguntza ekonomiko zuzenak ematea, euskal gizataldeetako partaideen asistentzia premiak eta egoera larriak atenditzeko urtean zehar.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

## Lortutako emaitzak:

126.313,80 € esleitu ziren (202.000 € aurrekontuan) 5 herrialdeko 12 euskal etxeen 109 familientzako. Batez besteko diru-laguntza: 1.158,84 €.

## Eragina gizartean:

Aurten Kubatik eta Venezuelatik etorritako eskaerak jasotzen jarraitu dugu.

Laguntza horiek oso baliagarriak dira, eta gizarte eragin onuragarria dute kanpoan den euskal komunitatearen sektore kaltetuenetan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: Premia larrietarako laguntza jaso duten familia kopurua

Aurreikuspena: 100

Emaitza: 109



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gaztemundu 2018**

## 2.- Araua

316/2003 DEKRETUA, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena.

38/2015 DEKRETUA, martxoaren 31koa, Gaztemundu programa arautzen duen Dekretua aldatzeko dena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

316/2003 DEKRETUA, 38/2015 DEKRETUAEBAZPENA, 2018ko maiatzaren 3koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, Gaztemundu programaren 2018. urteko ediziorako deia egiten duenaEBAZPENA, 2018ko uztailaren 11koa, Kanpoko Euskal Komunitatearen zuzendariarena, zeinaren bidez aukeratzen baitira 2018ko edizioko Gaztemundu programan parte hartuko duten pertsonak

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hona zertan den Gaztemundu Programa: gazteek egonaldia egingo dute Euskadin, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek finantzaturik, gaurko errealitatera hurbil daitezten eta gero Euskal Etxeetan isla dezaten. Egonaldi horretan, parte-hartzaileek parte hartu beharko dute eurentzat antolatzen diren lan jardunaldietan, eztabaida foroetan eta kultur guneeetara, erakundeetara eta turismo guneeetara egingo diren bisitetan.

Hauek dira Gaztemundu Programaren helburuak:

- a) Euskal Etxeetako gazteek gaur egungo Euskadiri buruzko heziketa eta jakintza zabalagoa izatea, eta Euskadin lan egiten duten eta bizi diren elkarte, erakunde, enpresa eta pertsonekin harremanak izatea.
- b) Euskadin bizi diren euskal gazteen eta kanpoan bizi direnen arteko harremanetarako guneeak sustatzea, eta kanpoan bizi diren euskal gazteak Euskal Etxeetan parte hartuzera bultzatzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak:

51.600 € herrialde bateko 14 euskal etxetako 15 gazte.

Aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak: 15, lortutako gazte kopurua: 15

Eragina gizartean:

1996an Eusko Jaurlaritzak sortutako Gaztemundu programaren helburua bikoiztua da: gaur egungo Euskadi jakinaraztea eta euskal etxeen batzordeetan gazteak sartzeko bultzatzea. Orain arte, 800 gazte baino gehiago irakatsi ditugu eta gehienak euskal etxeen batzordetan edo erresponzabilitate postuetan daude.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: Gaztemundu programako partaide kopurua

Aurreikuspena: 15

Emitza: 15



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko beka**

## 2.- Araua

Uztailaren 26ko 171/2011 Dekretua, kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko beka arautzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia ( EHAari Hiperesteka)

- Ebazpena, 2017ko abenduaren 20koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko beken deialdia egiten duena, 2018-2019 ekitaldirako.
- Ebazpena, 2018ko martxoaren 28koa, Kanpo Harremanetarako zuzendariarena, kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko beka esleitzen dituena 2018-2019 aldirako.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Beka arautzen dituen dekretuaren helburua da kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzea eta trebatzea.

Bekadunak honako baldintza hauek bete behar dituzte besteak beste: goi mailako edo homologatutako graduko unibertsitate titulua izatea; gehienez ere, 30 urte izatea, beketara biltzeko deialdia egiten den urtean.

Euskadin bertan, Euskadiren edozein ordezkariatzatan edo ordezkariatza horien mendeko edozein bulegotan espezializatu eta trebatu ahal izango dira bekadunak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

8 bekaren deialdia egin zen eta 8 esleitu ziren, bakar bat ere ez zen esleitu gabe geratu.

Erdietsitako emaitzei buruz, asebetetze inkesta anonimo bat egin zaie bekadunei; honako batez besteko puntuazioa lortu dira (gehienez 10 puntu izanda):

- Bekadunen esleitutako bekaerako asebetetze maila: 9.
- Parte hartutako ikastaro, jardunaldi eta mintegiekiko asebetetze maila: 8.
- Beka aldian jasotako jakintzarekiko asebetetze maila: 8,5.
- Kanpo harremanen eta Europako gaien arloan datu-base, informazio iturri eta abarrei buruz jasotako jakintzarekiko asebetetze maila: 8.
- Kanpo harremanen arloan eta Europako gaien arloan lanpostu bat aurkitzeko prestatuago dauden galdetuta: 7,5.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Beka-kopurua	8	8





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

57/2018 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802397e.pdf>

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 1ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako diru-laguntzak ebazten baitira. (EHAA 111.zk. ekainaren 11koa)  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803008e.pdf>

EBAZPENA, 2018ko azaroaren 6koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak diruz laguntzeko deialdia ebazten duena. (EHAA 227.zk. 2018ko azaroaren 26koa).  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805787e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza- azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gure gizartean bizikidetzaren kultura, giza eskubideen errespetua, eta enpatia eta elkartasuna bultzatzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 98 proiektu diruz lagundu dira; proiektuok 41 udalerritakoak dira, 5.600 biztanle inguru hartzen dutenak. 250.000 euro banatu dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erakunde parte-hartzaileen zenbakia	40	41



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuen programa**

## 2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

110/2014 DEKRETUA (EHAA 116.zb, 2014ko ekainaren 20):

<http://www.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2014/06/17/110/dof/spa/html/web01-s1lehbak/es/>

EBAZPENA, 2018ko apirilaren 26koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, Elkarrekin Bonuak Programaren 2018ko deialdia egiten duena, hezkuntza arloan. (EHAA 88. zb, 2018ko maiatzaren 9a):

[http://www.euskadi.eus/eli/es-pv/res/2018/04/26/\(2\)/dof/spa/html/web01-s2lehen/es/](http://www.euskadi.eus/eli/es-pv/res/2018/04/26/(2)/dof/spa/html/web01-s2lehen/es/)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 208 proiekturi eman zaizkio diru-laguntzak; proiektuok 16 erakundek aurkeztu dituzte eta 157 eskolatan egin dituzte. 347.480€. banatu dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru laguntza jaso dute proiektu kopurua	180	208
Parte hartutako erakundea onuradunak	28	16



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen proiektuak finantzatzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

57/2018 DEKRETUA (EHAA 85. zb., 2018ko maiatzaren 4koa):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802397e.pdf>

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 1ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzen deialdia egiten baita.(EHAA 11.zb., 2018ko ekainaren 11koa)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803007e.pdf>

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 10ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzen deialdia.(EHAA 242.zb., 2018ko abenduaren 18koa).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806166e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gure gizartean bizikidetzaren kultura, giza eskubideen errespetua, eta enpatia eta elkartasuna bultzatzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 221 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 120 erakundek aurkeztu dituzte. 600.000 euro banatu dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Programan parte hartu dutenen elkarteen zenbakia	70	120